



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-07-23**

VIII. URTEA 2.059. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

PATZIKU PERURENA IDAZLEA

«Teknikak artifizioa eskatzen du, eta nik espontaneitateko joera dut»

LEITZA 'Goizuetan bada gizon bat. Trabukoren kantako misterioak' izeneko liburua kaleratu berri du

BERTSOAK Trabukoren kanta izenez ezagutzen den bertso sortako gertakariak arakatzuz osatu du lana 2



Urteurreneko ekitaldietako antolatzaileak Tolosako San Frantzisko pasealekuan. O. IGUARAN

JUAN MARI JAUREGI OROITZEKO EKITALDIAK

TOLOSA Datorren ostegunean beteko dira 10 urte ETAK Tolosako zinegotzi ohia hil zuela; hori dela eta ekitaldi bereziak prestatu dituzte 3

«Ez daudenak» ere gogoratuko dituzte festetan

VILLABONA Bihar hasiko dira herriko jaiak; Remi Ayestaran oroitzeko ekitaldiak izango dira 4

Kirolariei omenaldia egiteko monolitoa, herriko sarreran

LEITZA Pello Iraizoz eskulturgileak egin du biribilgunean ikusi daitekeen artelana 6



XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta
parte hartu!

argazkiak@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa



E **Elkarrizketa****PATZIKU PERURENA** | Idazlea

«Ezaguna dudan mundu txikian dibertitzearen aldeko aukera egin dut»

Kultura » Poeta gisa agertu zen euskal letren plazara duela 25 urte, baina bestelako lanetan murgilduta dabil aspaldian. Lan horien ondorio du 'Goizuetan bada gizon bat' liburua.

JUAN LUIS ZABALA-BERRIA

Ahozko kontaketa, bertso eta kantu zaharren bidez ezagututako istorioetako gorabeherak artxibo zaharretako agiriak arakatzuz egiaztatzea «bizio» izaterainoko neurrian maite du Leitzan bizi den Patziku Perurenak (Goizueta, Nafarroa, 1959). Pasio zoro horren ondorio du libururik berriena: *Goizuetan bada gizon bat*. *Trabukoren kantako misterioak* (Alberdania).

Trabukoren kanta izenez ezagutzen den bertso sortak gertakariak arakatzuz egindako lan esker-garen ondorio da liburua, eta gertakari horien inguruko misterio batzuk argitzen ditu. Perurenaren ikerketen arabera, Joseph de Echagaray Berdabio baserriko bizilaguna da bertsoen egilea; 1747an atxilotu zuten, eta Iruñeko espetxera eraman, Trabuko izenez ezagutzen zuten norbaitek egindako salaketaren ondorioz, diru faltua egiteagatik, beste hiru lagunekin batera. Gertakariaren inguruko xehetasunekin 400 orrialdetik gorako liburua taxutu du, bi osagarriekin: argazki ugari eta Trabukoren kanta-ren doinu-berri ematen duen lana, Agustin Mendizabalek egina.

Goizuetako erretore Bixente Hermandorenak eskatu zizun ikerketa hau. Urte asko pasa dira.

Bai, 25etik gora. Ez ditut urte

hauek guztiak lan horretan pasatu, jakina. Niretzat lilura handieneko unea diru faltuaren inguruko zinezko datuen dokumentua aurkitu nuenekoa izan zen. Manuel Lekuonak idatzi zuen Trabukoren kanta XIX. mendeko gertakari batekin lotuta dagoela. Bixente Hermandorenak, Manuel Lekuonaren erreferentzia hori hartuta nik uste, bilduak zituen datuak, 1850. urtearen inguruan Urdailu, Elama, Berdabio eta abarretan zein bizi ziren eta horrelakoak. Datu horietatik atzeraka egiten hasi eta harrapatu nuenen Echagaray Berdabiori lotua, eta kartzelara eraman zutelara diru faltuaren inguruko kontuengatik, sekulako aurkikuntza iruditu zitzaidan. Ehizean dabilen zakurra lehenbiziko arrastoa aurkitzen duen unearen parekoa. Datu hori harrapatu nuenetik oso pozik ibili naiz gai honen inguruan.

Zein da istorio honen berezitasun nagusia? Zer erakarri zaitu?

Mendez mende ondo gorde dira istorio honetako hiru datu nagusiak: Lesakako elizako lapurreta, diruaren faltsifikazioa eta Trabuko salatzaileak egindako hilketaren salaketa. Ahozkoa eta artxiboa kontrastatzen nabil ni azken urteotan. Bizio bat da beharbada, baina niretzat ez dago gauza politagorik: duela 20 bat urteko istorio bat ahoz entzun eta gero artxiboetara

joan eta han istorio hori beraurkitu. Egari indar doblea ematen dio artxiboko aurkikuntzak, eta ni asko dibertitzen naiz.

Hutsune handia sumatzen duzu zuek egiten duzun lan horretan?

Ahozko tradizioa asko jaso dugu guk «gehiena jaso dugun herrietako bat izango gara euskaldunok», eta joera handia dugu jasotako horretatik mitoa egiteko. Orain dela 100 edo 200 urteko zinezko istorio asko mito bihurtu eta prehistoriaraino eramaten ditugu. Lan gehiago egin beharko litzateke garai batetik istorio hauen zehaztapen historikoak biltzen. Aberastuan handia dago hor, literatura sortzeko eta zinema egiteko; eta gure aurrekoen bizitza zinez, mitorik gabe, nolakoa zen ikusteko ere baliagarria da.

«XVIII. mendeko Euskal Herriko berdearen kronika» da liburua, Inazio Mujika Iraola Alberdania-ko editorearen ustez.

Istorioko 1747ko Leitzua, Lesaka, Zubietako eta beste hainbat herri-tako kontuak begiratzea eramanen ninduenek, orduko bitxikeriak ere jasotzen nituen, batzuk kantakotakari nagusiarekin zerikusi zuzenik gabeak. Horrelako pintzelada asko daude liburuan. Horretarako ere balio du liburu honek.

«Ezenak ikusi ahalean gidoia antolatatu eta, lan hau iruditan edertuko duen kamerari» eskaini diozu, besteak beste, lana. Zergatik?

Datu mordera ematen dut liburua, eta horiek egin daitezke nobela bat edo film bat. Beste alderdi bat izango litzateke. Inazio [Mujika Iraola editoreak] esan zidan ea zergatik ez nuen liburuko materialarekin nobela bat idazten.

Eta zer erantzun zenion?

Ez naizela horretarako kapaz sentitzen. Ni oso gustura nabil orain egiten ari naizen lanekin, ahoz jasotako bertsoak eta istorioak artxiboetan jasotako datuekin kontrastatzen, eta atzeraka egiten. Bakoi-tzak bere aukera egiten du, eta nik nahikoa dut nire mikromundutxo honetan azken 400 urteetan gertatutako ikertzearekin. Gaur egun oso modan dago mundu guztian entzuten den albiste bat hartu eta horren sintesia egitea. Nik notiziak eta gertakariak justu alderantziz bizi ditut. Munduan den gauzarik soilenari eta txokokenari ematen diot bestekek pertsonaiarik famatuenei ematen dieten dimentsioa. Inoxentekeria bat izango da beharbada, baina ni horretan nago.

Zer dela-eta erakartzen zaitu beste askok txokokeriatzat jotzen duten horrek?



INIGO URIZ-ARGAZKI PRESS

Zuhaitzaren simila erabiltzen dut hori azaltzeko. Oraingo gizartea zuhaitzaren hostoen antzekoa da. Haizek eramaten ditu hostoak, baxter guztietara zabalitzen ditu, eta inor ez da ohartzen zuhaitzaren zainez, inor ez da ohartzen zuhaitzari zainak eusten diola. Zainetara jo eta lurpean gordeta dagoen hori azaltzen dibertitzen naiz ni. Axalean zabalera egin beharrean, txoko zehatz batean barrerdu nahiago dut.

Korrante nagusiaren kontra ari zarela sentitzen duzu?

Beti izan dut fama hori, baina ezagutzen nauenak badaki ez dela posea. Neuk ditudan muga batzuen ondorio ere izan daitezke. Unibertitatean ikasi banu edo frailekondoa izan banintz, beste jakintza oinarri batzuk izan banitu... Baina nik neure kabuz ikasi dut, eta ezagutzen dudan mundutxoan dibertitzearen aldeko aukera egin dut. Askok esaten didate poesia idatzi beharko nukeela, baina diziplina eta metodo falta handia daukat poesia edo ipuinak idazteko, teknika falta zait. Horregatik, gogoeta eta entsegulaburren bildumetaramugatu geratu da nire literatur estiloa. Teknikak artifizioa eskatzen du, eta nik naturaltasunerako eta espontaneitateerako joera daukat. Gainera, gaurko munduan galdu egiten naiz. Internet, blogak, liburu elektronikoa... Ez dakit zer leku duen lehen aipatu dudan mikromundua gaurtik biharrera bukatzen den makromunduan. Letrari

eta poesiari gaurko munduan bide gutxi ematen ote zaion iruditzen zait, anti-poesia dagoela modan... Baina pasako da hau ere.

Pasako dela uste duzu, beraz? Noiz?

Gurdia eta gorpila asmatu zirenetik, lau edo bost mila urtez, estankatuta egon gara, eta pentsamendu klasiko horri esker garatu da, teknikaren estabilitate horri esker. Orain, teknika ezin kontrolatuz nola gabilzen, pentsamenduak eta poesia ez dute lekuri izango ziberetika hau estabilitate pixka bat izatera heltzen ez den arte. Mezua galdu egiten da teknikaren sofistikazioan. Gehiago begiratzen zaio teknikari eta bere aldatetei, mezuaren goxotasunari edo berezko balioari baino.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

Politika » Hil honen 29an beteko dira 10 urte Juan Mari Jauregi hil zutela, eta egitarau berezia prestatu nahi izan dute ohiko omenaldiaz gain.

OIHANA IGUARAN

Urtero hartzen dute gogoan 2000. urtean ETak hil zuen gobernadore zibil eta Tolosako zinegotzi ohi zen Juan Mari Jauregi. Aurten ere, betiko moduan aritu dira hilaren 29rako ekitaldia prestatzen, baina aurten 10. urteurrena izango den bezala, omenaldi berezia prestatu nahi izan dute.

Honela, hainbat lagun eta kide elkartu dira ekitaldi berezi hauek prestatzeko. Omenaldi hori aurkezteko atzo eskainitako prentsaurrekoan, argi utzi nahi izan zuten antolatzaileek, ekitaldi nagusia hilaren 29koa izango dela, «hori baita urteurrenaren egun zehatza». Hala ere, hainbat egunetarako ekitaldiak antolatatu dituzte, omenaldi politikoaz gain, «lagunartekoa eta oparoa» izatea ere nahi dutelako.

«Bizitza eta gastronomia»

Hitz horiekin gogoratu zuen Roberto Ruiz sukaldariak bere adiskide zen Juan Mari Jauregi, haren omenez gaurko antolatutako afaria azaltzen hasi denean.

Omenaldi berezia eskaini nahi diotela aitortu zuen Ruizek, Jauregiaren zaletasun handietako batekin oroitutako baitute, gastronomiarekin. Honela, hainbat sukaldari elkartu dira gaurko afaria prestatzeko, «lagun gastronomoaren omenez».

Jauregiaren ibilbidea

Juan Mari Jauregi Legorretan jaio zen. 1973tik 1989ra PCEn militatu zuen. Ondoren, talde sozialistara pasa zen 1989an. Handik bi urtera,

Juan Mari Jauregiaren urteurreneko omenaldia prest



Urteurreneko ekitaldietako antolatzaileek aurkeztu dituzte ekitaldiak. OIHANA IGUARAN

zinegotzi kargua hartu zuen Tolosako Udaletxean. Ondoren, 1994. urtean, Juan Alberto Belloch sailburuak Gipuzkoako gobernadore zibil karguan jarri zuen, Joxe Mari Gurrutxaga ordezkatuz. Kargua 1996an utzi zuen.

Azaldu moduan, aurten, urtero egiten zaion ekitaldi politiko eta familiarrekin, omenaldi oparoa prestatu zaio behoko egitarauan ikus daitekeen moduan.

Ekitaldien aurkezpenean, ez zituzten ahanzturan utzi nahi izan ez Juan Mari Jauregi bera, ez eta ekitaldi guztiak prestatzeko laguntza eskaini dutenak: «eskerrak eman nahi dizkiogu Tolosako Udalarri, laguntzen ari den jende guztiari eta baita Topic kulturguneko ere».

» X. URTEURRENEKO EGITARAUA

Gaur, uztailak 23

■ **21:00etan Legorretako Bilkoin elkartean.** Jauregi babestu ohi zuen lehiaketa gastronomikoaren oroimenezko afaria.

Asteazkena, uztailak 28

■ **20:00etan Tolosako Topic-en** mahai-ingurua.

Parte-hartzaileak:
-Galo Bilbao (filosofoa eta teologian doktorea).
-Jose Angel Lasa (soziologoa eta Arte Ederretan doktorea).
-M^a Carmen Garmendia (Euskal Gobernuako kontseilari ohi).
-Jaime Otamendi (kazetaria, ETBko teleberriko zuzendari ohi eta egun, Euskadi Irratiko esataria) moderatzaile lanetan.

Osteguna, uztailak 29, ekitaldi nagusia

■ **12:30ean Aranburu jauregiaren**

ondoko biktimen gunean lore eskaintza.

Parte-hartzaileak:
-Oscar Renedo (Tolosako PSE-EEko idazkari nagusia).

-Jose Manuel Rodriguez Uribe (Terrorismoaren biktimen babesarako zuzendaria).
-Maixabel Lasa (Jauregiaren alarguna eta Euskal Gobernuko biktimen bulegoko zuzendaria).

Ostirala, uztailak 30

■ **20:00etan Tolosako Topic-en** musika eta poesia emanaldia.

Parte-hartzaileak:
Mikel Arregi poeta; Ekaitz Goikoetxea, Irati Goikoetxea eta Andoni Egaña bertsolariak; Jose Ramon Soroz aktorea; eta Jose German Ormazabal, Amalia Ibañez eta Iñaki Mezquita musikoak.
Eduarne Ormazabal tolosarra izango da ekitaldiaren aurkezlea.

www.euskalherriko **plaza.com**

skunkfunk %20

Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

okot %20

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

20 €

20 €

20 €

TTAK

2 elastiko 35 €



Julito Iturbe, Maixabel Arrieta, Hautsi Izagirre eta Maialen Abaigarrek aurkeztu zituzten herriko festak; kalera ateratzeko deia luzatu zuten. E. MAIZ

Aurtengo Santio Jaietan herrian «ez daudenak» ere gogoan izango dituzte

Villabona » Eresargikoek bihar 12:00etan jaurtiko dute txupinazoa. Musika, erakusketa, batelak, baltsa jaitziera... izango dituzte.

ENERITZ MAIZ

Bihar hasiko dira Villabonako Santio Jaiak 2010, eta hilaren 31n, San Inazio egunez bukatuko dira. Hala ere, iaz bezala, astebetez luzatzen diren jai hauek, atsedeen egun bat izango dute. Hilaren 27a, astearte, billabonatarrek indarrak hartzeko baliatuko dute. Aurretik beste lau egun izango dituzte festarako.

Atzo aurkeztu zituzten aurtengo prestatu dituzten herriko jaiak. Julito Iturbe, Maixabel Arrieta, Hautsi Izagirre eta Maialen Abaigarrek zinegotziak, bat eginda atera

ziren. Urte «oso zaila» izan dutela azpimarratu zuten eta aurtengo «festei gogor eutsiko» dietela jakinarazi zuten. Aurtengo jaiak ere ahal izan duten «hobekien» antolatzen saiatu dira.

Santio Jaien aurkezpenarekin hasi aurretik, Hautsi Izagirre Kultura zinegotziak, aipamen batzuk egiteko beharra adierazi zuen. Eta nola ez, urtebete betetzear den honetan, Remi Ayestaran udal taldeko kide eta laguna gogoan izan zuten: «Urte hau oso zaila izan dugun» azpimarratu zuen lehen hitzetan Izagirrek. Hala eta guztiz ere, aurtengo festei «gogor» eutsiko diete. «Remi Ayestaranek pila bat laguntzen zuen urtean zeharrekolan eta festak iristean ere bere lana izugarria zen» gaineratu zuen. Herri guztian hutsunea nabaria dela gogoratu zuen, baina aldi berean, herritarren ekarpena

ere «izugarria» izan dela esan zuen.

Era batera edo bestera, herrian egon ezin dutenak ere gogoan izan zituen: «euskal preso eta errefuxiatuak». Eta beraien senideei «elkartasuna» adierazi nahi izan zien. Bukatzeko, ez zituen aipatu gabe utzi nahi urtean zehar zendutakoak; «duela gutxi hil zen Mikel Zalakin» aipatu zuen.

Festak ongi pasatzeko direla gogoratu zuen baina «guzti hau aipatzeko beharra sentitzen dugu. Euskal Herrian jazarpena handia da eta guretzat Villabonan izugarria izaten ari da».

Behinesan beharrekoak esanda, prestatu dituzten eta hastear dauden jaien egitarauari heldu zion, berrikuntza eta falta ezin diren urteroko ekitaldiak aipatuz. Urtero urtero, festak hasi baino hiru hilabete lehenago bilzen dira herrita-

rrekin eta eragile ezberdinekin festak prestatzeko. Parte hartzen dutenei «eskerrak» aurrera ateratzen dituzte festak.

Herriko festak onak egiten dituztenak herritarrek direla uste dute eta horregatik «txiki eta heldu, gazteetatik pasata» kalera atera eta denen parte hartzea nahi dute. Urteroko ekitaldiak, futbito txapelketa, pilota, dantza emanaldiak, jubilatuen bazkaria, danborrada, haurrentzako jolas ezberdinak... ez dira faltako.

Berrikuntzen artean, aurtengo lehen aldiz, batelak izango dira Oriabaian. Eta baita baltsa jaitziera ere. Hauek Onddo gazte asanbladaren eskutik izango dira. Ireki berri duten Uhaskan, tailerren erakusketa bat izango da. Beste ekitaldi hauek ere egongo dira: Eresargi Abesbatzak 25 urte betetzen ditu eta txupinazoa jaurtitzear gain, lan berezi

bat egin dute Mikel Urdangarinek in jaietarako. Oinkari dantza taldeak 35. urteurrena betetzen du eta Euskal Jaia antolatzeko ardura beraien hartzen dute. Beraien emanaldiaz aparte, Korrontzirekin batera beste bat eskainiko dute. Loatzo Musika Eskolaren emanaldia ere izango da eta banda ere berriena izango da. Beti kanpotik ekartzen zuten eta Loatzo Musika Eskolaren beste ekarpen bat izango da. Lan handia delako bi urtez behin egitea aurreikusitako bazen ere, konpartsak ere izango dira. Eta festen azken gaua, mozorro gaua izango da.

Remi Gogoan Ekimenak ere prestatu ditu ekitaldiak

Hilaren 24an, larunbata, Remi Ayestaran «gehi» gustatzen zitzaien danborrada izango da. Unai Urreaga, Remi Gogoan ekimeneko kideak kontatu digunez «bere koilara handia hartuta ateratzen zen eta berari, herritar guztiek bertan parte hartzea gustatzen zitzaien». Iaz, 200 lagunetik gora elkartu ziren. Aurtengo, danborradak ibilbidea aldatuko du eta «inoiz pasa ez den Remi Ayestaran ibilbidetik pasako da». Bertan, lore eskaintza egitearekin batera, Villabonako martxa joko dute.

Hilaren 31n, 20:00etan, azken hata hartu zuen tokian bertan elkartuko dira. Omenaldi txiki bat egingo diote: «Familiakoak, koardilako lagunak, Udalekoak, Burgosko lagunak, herritarrek...» elkartuko dira. Burgosko lagunak, eskultura bat egin dute eta hori ezagutaraziko dute. «Harrizko ukabila da» azaldu du Urreagak eta «atzean beraien esaldi bat jarri diote eta aurrean guri utzi digute lekua. Jon Iñaki Ormazabal ari da esaldia zizelkatzen». Ziur, ibilbidea txiki geratuko dela.

Eta urteroko ohiturari jarraituz (heriotzaren ondoren iaz suspentitu egin behar izan zuten) erroskilaren erreketarekin batera, argazki proiektzioa eskainiko dute, kasu honetan, Onddo gazte asanbladaren eskutik. Bertan ere Remi gogoan izango dute.

berria bekak 2010

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Asteazken lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Asteazken lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian


Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Garikoitz Murua GKo galerian . O. PEÑAGARIKANO



GKo galerian arropak ere saltzen dituzte. Orain Pixel Panchoren erakusketa ikusi daiteke bertan, baina bihar bertan kenduko dute. O. PEÑAGARIKANO

GKo, sormenaren habia

Kultura » Arteaz gozatzeko leku ezin hobea da Tolosako GKo galeria; graffitiak eta artista gazteen lanak daude ikusgai.

OLATZ PEÑAGARIKANO

«Zer da hau?». Horixe da bati baino gehiagori burura dakiokkeen galdera Tolosako GKo galeriaren ondotik pasatzen denean. Kaleari 100 m² irabazi dizkiotela esaten du Garikoitz Murua, galeriako bazkideetako batek. Izan ere, ber-

tara hurbiltzen denak *street art* edo kaleko artearen erakusketarekin egingo du topo: graffitiak. Erakusketa hau Pixel Panchorena da, eta bihar bertan kenduko dute.

Galeriako espazioa irekita geratzen da erakusketetarako, eta hainbat produktu ere komertziali-

zaten dituzte: graffitiak egiteko materiala, kaleko artearekin loturiko liburuak, kamisetak... Horrez gain web orriak, logoak zein diseinuak egiteko zerbitzua eskaintzen dituzte.

Elkarlana

Elkarlana ezinbestekoa da GKo bezalako proiektuak funtzionatzeko. Bazkideak Garikoitz Murua eta Camilo Rodriguez badira ere, hainbat lagunek hartzen dute parte bertan, bezeroarekin zuzenean

lan eginez. Beharbada horregatik lortu du galeriak bi urte eta erditan arrakasta eta egonkortasuna.

Sormena landuz

Artearekiko grina oinarri harturik, jende ugari igaro da bertatik bere sormena erakusteko helburuaz. Izan ere, galeria honek norberaren lanak garatzeko aukera ematen du: «jende gazte asko hurbildu da hona zer bait egiteko gogoz eta guk horretarako lekua eskaini diegu». Beraz, esan daiteke galeria ez dela

erakusleho soila; bertan mugimendua sortzen da, denborabatez artista gazteen bizilekua bilakatzeko delarik.

Oraindik orain galeriaren kontzeptua ulertzea kosta egiten bazaigu ere, harrera bikaina izan du GKok herrian. Bertan sartzen denak ez du ohiko saltokirik aurkituko. Sormenaren habia da galeria, etengabe haziz doan kultura modernoaren bizitokia. Inguruan ditugun artista txikiak ezagutzeko aukera ezin hobea dugu honakoa.

Maiatzean, Kultur Aroaren baitan inauguratu zuten herri sarrerako biribilgunean dagoen monolitoa. Pello Iraizozek egin duen lanarekin, kirolariei omenaldia egin nahi izan die.

Lana, beharra eta kirola

ERREDAKZIOA

Euskal Herrian, herri kirolengatik ezagutua bada herribat, hori Leitza da. Ez da erraza, herri honek bezain beste herri kirolari eman duen besterik aurkitzea. Harri-jasotzaileak, aizkolariak, segalariak, txinga eroaleak... eta izen handikoak gainera. Nork ez ditu ezagutzen, Perurena aita-semeak edota Saralegitarrak.

Leitzako Udalak, herri kirolariei eta oro har kirolari guztiei, omenaldia egin nahi izan die. Herri kirolari asko daude, baina badira txirindularitza, futbola edota saskibaloio jokalaria ere, eta guztiei eskainia da herri sarrerako monolitoa. Maiatzean, Kultur Aroaren baitan inauguratu zuten Pello Iraizoz eskulturgile iruindarrak egindako lana. Monolitoak, *Lana, beharra eta kirola* izena du eta beheko partean idatzita dauka. Bost metroko altuera eta 6,5 tonako pisua ditu. Harri berezia da. Atzeko aldean, «hondartza fosilak» ditu.

Trafiko arazoak tarteko

Aurreko legealditik datorren kontua dela kontatu digu Juan Mari Barriola zinegotziak. Azken urteetan, trafiko arazoak izan dira. Arazoari irtenbidea emateko eskaera asko izan dituzte. Konponbidea emateko ordua iristean, aurretik eginda zegoen aska, iturria... puskatu egin behar izan dituzte. Zenbait herritarrei «pena» eman diela azaldu digu Barriolak, baina «arazoari irtenbidea emateko, ez zegoen beste biderik» dio zinegotziak.

Behin biribilgune berria egiteko pausua ematen hasi zirenean, herriak duengune garrantzitsu bat dela kontuan izanda, zerbait «txukuna eta berezia» egiteko gogoia zuten.

Monolito bat jartzeko ideia bururatu zitzaion eta, Barriolak berak, Pello Iraizoz eskulturgileari erronka botatu zion. Hark onartu eta segituan esan zion harri berezi bat bazuela. Harria landu du eta bertan erdi parean, kirol ezberdinak ikus daitezke: sokatira, aizkora,

Trafiko arazoengatik biribilgune berria egiterakoan monolitoa jartzeko ideia izan zuten.

Pello Iraizozki erronka bota eta hark onartu zuen; Leitza, Nafarroa eta kirolerako ikurrak ditu.

sega, pala, trontza, pilota..., baina baita 1192 Leitzaren sorrerako urtea eta aurtengoa, Nafarroan asko ibili diren izarra eta ilargiaren irudiak eta armarrak ere. Herrian dagoeneko ongi txertatu da, biribilgunea eta baita monolitoa bera ere.

Inaugurazio xumea egin zuten eta herri kirol munduan gaur egun dabilzanak eta lehen ibiliak elkartu ziren. Irigana, oraina eta etorkizuna. Hemendik aurrera, Leitzak egunero izango ditu gogoan herri kirolariak nahiz beste edozein kirolariak ere. Baita kirolzaleak ere.



Eskulturar, herri sarrerako biribilgunean egiten du ongietorria. E. MAIZ



Maiatzeren 24ean inauguratu zuten eskultura. Herri kirolari ugari bildu ziren aurkezpen ekitaldira. E. BELAUNZARAN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Atekabeltz gaztetzean ospakizunekin jarraitzen dute

Leitza » Gaur I. Korto Lehiaketa ospatuko da eta bihar egun guztiko jaia antolatu dute Gazte Asanbladako kideek.

ERREDAKZIOA

Leitza Gazte Asanblada ospakizunetan murgildurik aurkitzen da egun hauetan. Atekabeltz gaztetzearen bosgarren urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur eta bihar, zer ikusia eta zer gozatuez da faltako Leitza.

«Ateak irekita»

Gazte Asanbladako kideen esanetan «Atakabeltz gaztetzeara irekia, dinamikoa eta langilea da». Bost urte hauetan leitarrek hori frogatzeko aukera izan dute. Gaztetzeara, autogestioan oinarritutako kultur eta aisialdiaren erreferentzia nagusia da herria. Lan horren ondorioz, «herriari bizia ematea» lortu dute Gazte Asanbladako kideek, «gazteei aisiarako alternatiba bat eskaintzearekin batera».

V. urteurrenaren ospakizunetan bezala, egunerokotasunean

ere «donork» hartu dezake parte gaztetzearan antolatzen diren ekimenetan.

Urteurrenaren inguruko ospakizunak astelehenean hasi zituzten, Palestinaren inguruko hitzaldi batekin. Ondorengo egunetan, *Itsasoaren alaba* dokumentala ikusteko aukera ere izan zuten. Gaur berriz, zinegileak eurak bilakatu dira, I. Korto Lehiaketan. Denera 10 laburmetraia aurkeztu dira eta denak ikusteko aukera egongo da. Hauetakoa batzuk herritarrenak baldin badira ere, Tolosaldeko eta Altsasu aldeko jendeak ere hartu du parte Lehiaketan. Behin lanak ikusita, bertaratu direnek lan onena aukeratu beharko dute.

Bihar, hilak 24, egun guztian zehar ospatuko dituzte ekitaldiak, jaia herri guztira zabalduz. 11:00etan plaza kalejiran irten go dira, txistularien laguntzaz. Txupinazoa bota eta hamaiketarako egin ostean, bazkaria izango dute zain. Paella jatea egingo dute, eta arratsaldean, poteoa, kalejira moduan. Hortik aurrera musika izango da nagusi, hip-hop nahiz rock kontzertuekin.



Palestinaren inguruko hitzaldia Atekabeltz gaztetzearan. HITZA

» ATEKABELTZ GAZTETZEAREN 5. URTEURRENA

Uztailak 23, gaur

■ **22:30.** Korto lehiaketako proiektioa, Atekabeltz gaztetzearan. 10 laburmetraia ikusiko dira.

Uztailak 24, bihar

- **11:00.** Kalejira plazatik abiatuta Gaztetzera, txistulariek alaituta.
- **Ondoren.** Txupinazoa eta hamaiketakoa.

- **14:00.** Bazkaria Atekabeltz gaztetzearan. Arratsalde partean berriz, kalejira.
- **20:00.** Goienetxe anaiak hip-hop taldea eta break dance erakustaldia.
- **Jarraian.** Luntxa.
- **23:00.** Kontzertuak, Zopilotes Txirrius eta Wishky Mama taldeekin.

Adunako Transernio VII. Pilota Txapelketako partidak

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan sei partida jokatu ziren ondorengo emaitza hauekin:

Alebinetan, Añorgak 16-8 irabazi zioen etxeko taldeari. Infantiletan, Hernanik 18-2 irabazi zion Zizurkili eta Andoainek 18-9 Añorgari. Benjaminetan, Añorgak 7-16 galdu zuen Usturbilen aurka. Kadeteetan azkenik, Andoainek 22-8 irabazi zion Villabonari eta Añorgak 22-3 Amezketari.

Gaur eta bihar, Adunako pilotalekuan sei partida jokatuko dira. Gaur, 18:30ean, Lasarte-Andoain eta Bidegoian-Añorga lehiak jokatuko dira alebinetan. Infantiletan berriz, Lasarte-Bidegoian eta Hernani-Andoainen artekoa. Bihar, 11:00etan, benjaminen mailako bi partida jokatuko dira, Aduna-Bidegoian eta Villabona-Usturbilten artekoa.

Hilaren 29an, ostegunean, 18:30ean jokatuko dira partidak, kadete mailakoak. Lehenik Añorga-Andoain lehiatuko dira eta ondoren Bidegoian-Hernani.

Transernio VII. Pilota Txapelketaren finalak abuztuaren 7an, larurbatean, jokatuko dira. Txapelketa osoa bezala, azken partida erabakigarriak Adunako pilotalekuan jokatuko dira. Pilota jaialdia 16:30ean hasiko da.

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Atzalean erabiltzeko TDOI ak artzale iragarkilaburrak.com argitaratuko dira.
IRAGARKIAK_JARTZERIK: www.tolosalkohitza.iragarkilaburrak.com/943-655699 telefono ombakia

Higiezinak
ETXEBILAK
SALDU

Tolosa. Tolosako Aste Zaharman atzeratzea. 50m2. Eguna onean. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 pta). Interesaturik diru 945-43.00.20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

Tolosa. (Voith-Gorosti) Erakuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 konan ekipatuak, egongela handia eta 2 logia. Argitua. 2 terraza eder eta baita baserri ere. P-merkio salmenta. 658-72-92-88.

Urtxibai inguruetan
LAN PISKARRIAK
IRAKASLEKUNTZA

Villabona. Inguruko klusak ematen dira G-ko pisu mailan. Taldeko edo bakarrik. Maila ezberdinak. Inklusio Dikusiua. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta

elektroniko continent56@hmail.com

Ahna/Kirio
ANIMALIAK
EMAN

Txakur kumeak oparitzen dira. Hertsaldekoko pertsona bati, txakur kumeak oparitzen ditu. Interesaturik, diru 678-618330 telefono azkenikoa.

KANPOKOAK
GUREAN

Higiezinak
PISUA KONPARTITIBO
PIRUADE BILA

Gaztelu. Gazteluaren pisua osatzen bi lagunen bila nabli. Aldeko inguruetan. Aste Zaharretik bi minutuko. Bigela duela libre. Jende irekia eta arduratsuak bilatzen dit. Er emantzuak. 200 euro + gontak. 609-594637.

Bigelgiak
FERRONTAK
SALDU

Renault master auto-karavana. Bilakatzeko 6 plaza (dina homologatua). J. J. eta irakurketa sistema. L. eta irakurketa sistema. 1.25 x 1.9 m. Bigarren oher bat (1.30 x 1.50m) jurgonez sabinen sabaien plegeta. Ur edangaria 170 litrauz zikloareko ardiak 120. Arrepeintat amarru bikokita. Jateko mahai plegeta. 12 viluminarioa. 2 satalo sukaldeko, fregadiera eta armairuak. 90 litroko hozkalua. Baterria aurilari. Taldeak. Buzkietak esanstekoa.

Kopiatzailea aukeratu/bilakatu. Herrerriko bertako eduneriari ematen da. ematen da. ematen da. 655-72-52-52.

Ahna/Kirio
SPIDARRIKEMAN
GAINERRAKIA

Etteri Lodosara. Huts-erakundearen eremua esagutzeko nahiz, bertan Lodosara eta egun batzuk pasatuz gero lan-darazteko. 677-83-40-47-948-693618.

Leku hau zure iragarkiarekin zain dago

Salbide
SALBIDE
Higiezinaren zerbitzuak.
Bilaka kalea, 6 • 20600 Zarauz
Telf: 943 01 07 00 + Mg: 445- 71 85 96
www.inmesalbide.com

Etxebila
Higiezinak

943-44 61 66
SALDU

AMARA Añosa. 2 logia, egongela, sukaltza, berdegela, Terraza 27.000.000 pta
AMARA 2 logia, egongela, sukaltza, berdegela, Terraza 36.000.000 pta
AMARA Añosa. 3 logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 46.000.000 pta
AMARA 3 logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
AMARA 3 logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 36.000.000 pta
AMARA 3 logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 21.000.000 pta
PORTUJARRI Berritara begira Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 41.000.000 pta
ETXEBILAKA Hondarribia 42.000.000 pta
ETXEBILAKA Hondarribia 42.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 56.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 41.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta
ETXEBILAKA Logia, egongela, sukaltza, berdegela Terraza 31.000.000 pta

www.etxebila.net
Follow us on: 4 - DONOSTIA

Lazkao
IRAKASLEKUNTZA

IDIAZABAL
IRAKASLEKUNTZA
2115-000 0
Jose Luis, 4- behean - 26210 Lazkao + 943-88 37 38
www.lamy lazkao.com

ATAUN
110m2
gorria eta berdea
296-838 6



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Urteurrena

■ **Leitza.** I. Korto Lehiaketaren proiektzioa eta sari banaketa Ate-kabeltz gaztetxean 22:30ean.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua Lopez Mendizabal ibiltokian 22:30ean, Gau Giroren egitarauaren baitan.

Irteera

■ **Villabona.** Bihar Behar-Zanako kadeteek Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu du Baionako taldearen aurka. Behar-Zanako autobus bat antolatuko du Uztaritzera joateko. Nahi duenak izena eman dezake Behar-Zanako egoitzan prestatutako zerrendan. Taldeko pilotariak hauek izango dira: Kepa Nazabal, Ander Nazabal, Beñat Iraola, Jon Ander Artola eta Iñaki Otaegi sakalari gisa.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Udaletxe aurreko aparkalekua berrituta

ANOETA • Anoetako Udalak, aste honetan bertan, plazako aparkalekua berritu du. Asfalto zaharkitua aurkitzen zen eta lehenik eta behin zaharra kendu zuten eta ondoren, garbitutako esparruan asfalto berria bota dute. San Joan Bautista Elizaren aurrean aurkitzen da plaza txiki hau.

Udaletxearen aurreko aparkalekua da eta erabilera handia izaten du. Ez zen denbora luzeko lana eta epe motzean bukatu dituzte bertako lanak. Oraindik ez dituzte aparkalekuko marraz margotu. Hori izango da hurrena egin beharreko lana. E.MAZ

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

16. urte
16. urte
Euskal Herriko Selektzioen alde

MENDI 1

MARTXA
Uztailaren 31tik abuztuaren 8ra

Uztaritze > Elgeta > Trebiñu
Abuztuaren 31tik ELGETA
EGUN OSOKO JAIA

www.euskal.org

ABENTURA HASI DA...

OSIA EZATO JAI
TRAILEREN NASALAN

10:00-14:00
14:00-18:00

Abuztuaren 31tik
943 133 147/933 847 200
www.tolosaldeko-hitza.com